

# 11 ELHUYAR

EKAINA 1977

---

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

---

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Circulo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

---

## EUSKARA LANTEGIETAN

Euskararen normalizazio bidean ez da benetako aurrerapenik erdietsiko gure hizkuntza lantegitan sar dadin artean. Oraintxe bertan entzuten da noski euskara lantegitan, baina asko ala gutti entzuten den esateak ez digu behar hainbat argitasun emanen bere egoeraz.

Badira ugaritasuna bezain garrantzitsu diren beste faktore batzu.

Lantegiaren barnean, eremu sozial mugatu bat den neurrian, hizkuntzaren erregistro batzuk pisu handiagoa dute beste batzuk baino. Lantegi batetan hitzegiten da gai arruntez ere, baina lantegiko arazoez hitzegin behar izaten da gehienbat (edo beharko litzateke behintzat).

Hizkuntza aruntak lantegitan, beste edozein lekutan dituen problemak ditu. Ez gara horretaz arituko hemen.

Lantegi hizkuntza ez da haatik teknikoak bakarrik, baditu maila desberdinak.

Lantegi batekiko harremana askotan telefonoz hasten da. Zenbait lantegitan hasiak dira telefonoa hartzean norma bezala euskaraz erantzuten. Horrexek, gauza hutsa izan arren, asko lagun diezaioke euskarari bideak irekitzen. Lantegi bakoitzeko euskaltzaleon eginkizun bat telefonoz euskaraz erantzun dadin eskatzea izanen da.

Orobat esan behar da telefonozainak lantegiaren barnera ozengailutatik egiten dituen deiei buruz. Gauza erraza da —eta normala bihurtu behar du— ozengailutatik “Garmendiak dei bera bostera” eta horrelakoak esatea. Zenbait lekutan pozik entzun ahal izan ditugu horrelakoak. Azaleko gauzez ari garelarik, oso lagungarri dateke lantegiak euskalduntzeko, bertako xartelak euskaratzea: “Zuzendaritza”, “Bilkur gela”, “Sar zaitetz deitu gabe”, etab. Zer bait zailagoa baina oso beharrezkoa

da lantegi barneko oharrak euskaraz azaltzea. Lantegiaren barnean euskaltzetasun serio bat baldin badago bertako lankideen artetik izendatu behar da oharrok euskaraz idatziko dituenak. Ez dezakegu normaltzat har oraingoz zenbait lekutan egiten dena. Modaz edo, jendeak eskatzen du oharrak euskaraz azaltzea eta horretarako prest dago, baina inor ez da saiatzen lan hori egiteko prestatzen eta ibilian ibilian betiko "saiatuei" leporatzen zaie lana.

Alderdi horretatik ikusten ari garen beste akats izugarri bat ere aipatu beharrean gaude. Euskaraz ipini behar dela zerbait eta badaezpadako itzulpen bat egiten da. Itzulpen txarra izateaz gainera, horrelako lan kaxkarrak erderazko textuaren egitura izaten du, ez da euskaraz birpentsatua izaten eta jakina, borondaterik onena duenak ere euskarazko oharra baztertu eta erderazkora jotzen du.

Problema honek erantzun jator bat izan dezan erremedio bakarra alfabetatze kanpaina lantegietara eramatea da. Horretarako erremedio bakarra eta ondoren aztertuko ditugun beste problema zailagoei irtenbide bat bilatzeko ezinbesteko abiapuntua.

Lantegiko gaiei buruzko hizkuntza arazoa askoz ere konplikatu eta zailagoa da. Hizkuntza teknikoarena alegia. Askotan aipatu izan dugun bezala eta denok dakizkigun arrazoiengatik, euskarak ez du aukerarik izan artesau haroko teknika hizkuntzatik industri harokora moldatzeko.

Langile euskaldunak zer egiten du egoera honetan? Errezera jotzen duenak, errazkeriaz, erdara erabili eta euskara baztertu.

Euskaraz egiten duenak hitzetik ortzera egiten du topo gure hizkuntzan oraindik sortzeko dauden hitzekin, esaldiekin eta hizkerarekin.

Erdal interferentziaz beteriko euskara bat erabiltzen du ezinbestean.

Hori txartzat jo behar da noski eta ez jarrera "garbizale" baten izenean. Gauza bat bait da hitz internazionalak ez ametitzea euskararentzat edo ta zenbait kasutan komenentziaz gure inguruneko kultur hizkuntzetatik prestamuak hartzearen egokitasuna ukatzea eta beste bat euskararen erdararekiko morrontza edo euskararen lege fonetikoak, sintaktikoak, morfologikoak etab. errespetatzen ez dituen sasieuskarara bat onhartzea.

Egoera tamalgarri honetatik irteteko, beti esaten duguna, irakaskuntzak du irtenbidearen maratila, eta aztertzen ari garen kasu honetan irakaskuntza profesionalak batez ere.

Hasiak dira arlo horretako eskolak arazoaz kezkatzen eta laster ikusiko ditugu kalean lehendabiziko euskal testuak. Berri pozgarria dugu hori eta bere fruituak emanen dituela zihur gaude, baina epe luzearako fruituak beharko dute izan. Ez da aski hori. Soluzio urjentek eskatzen ditu euskararen gaurko egoerak.

Oraintxe bertan lantegietako jendeak ere jabetu behar du sortzen ari den euskara teknikoaz. Zabalkunde problema nabari bat dago. Banaka dira sortzen ari den euskara teknikoaren berri dutenak.

Alderdi horretatik bere euskara landuxea dutenek ere ezin dute dakitena erabili. Oraingoz elite hizkuntza bat besterik ez dugu.

Ikasi horietako bat dakiena aplikatzen hasten baldin bada, ez diote tutik ere ulertuko.

Lantegietan euskara teknikoaren zabalkundea egiteko metodo bat bilatu behar dugu.

Hona zein izan litekeen metodo hori:

— Lantegietan bertan ikastaro batzuei antolatuko litzaiteke.

— Lan sail desberdinetako langileentzat ikastaro desberdinak emanen litzaiteke (Administrazio sailekoak, bulego teknikoak, tailerretakoak, etab.)

— Talde bakoitzarentzat gai jeneral batzu landuko liriteke; dela teknologia mekanikoa, dela marrazketa teknikoa, dela kontaduria etab.

Gai hauk, gai bezala ezagunak izanen dira ikasleentzat baina sekula euskaraz landugabeak.

— Hurrengo urratsa lantegi bakoitzeko langintza bereziari dagozkion gaiak izanen dira.

Gai jeneralak eta gai bereziak tratamendu desberdina beharko dute. Gai jeneralarako erabil daitezke irakaskuntza profesionalerako prestatzen ari garen textuak berak.

Gai berezientzat beste metodo bat beharko da. Metodo hau izan liteke, irakaslearen gidaritzapean, ikasleek lantegiko langintza bereziari buruzko idaz-ariketak prestatzea eta, bide batez, horretarako beharko den hizkuntza bereziaren sortzaile bilakatzea.

Ikastaro hauetan parte hartuko duenak aurretik alfabetatu egin beharko du, nahiko lan izanen bait du ikastaroaren zailtasuna gainditzen. Zenbait jende ote dago horrelako ikastaro batetan ikasle izateko kondiziotan eta zenbat irakasle izateko moduan? Lehenbizikoetatik gutti eta bigarrengoetatik are guttiago. Halere ez dugu ekintza mota honi ekitea bezalako biderik ikusten.

ELHUYAR taldea, bere baldintzapenak eta ahuleziak ongi ezagutzen dituen arren, prest dago horrelako lan bat egiteko gogoia duen edonorekin harremanetan jartzeko eta lehenengo esperientziak egiteko.

